

KOSTUEN EGITURA

Atal hau gure negozioaren kostuak zeintzuk diren argitzeko erabiliko dugu, hau da, gure zerbitzuaren diru-irteerak eta dauden mota desberdinak adierazi egingo ditugu. Bi zatitan banatuta egongo da: alde batetik, hasierako kostuak, eta, beste aldetik, hilabeteko kostua. Hilabeteko kostuen barruan kostu aldakorrak eta kostu finkoak bereizten dira.

Hasteko, hurrengo taulan gure proiektuari hasierako bultzada emateko beharrezkoak izango diren kostuen eta diru-irteeren estimazioa aurkezten da. Taula honetan hasierako inbertsioa osatzen duten baliabide eta material guztiak zehazten dira, baita horietako bakoitzaren kostua ere.

Testu hau aztertu ondoren, dauzkagun gastuak bideragarriak direla ondorioztatu dugu daukagun aurrekontuarekin, hau da, hasieran, diru gehien gastatuko gurela uste genuenean, enpresak prozesu ona jarraituko duela pentsatzen dugu, ez baikaude inoiz zenbaki gorritan, ez hasierako inbertsioarekin, ez beste gastuekin.

HASIERAKO KOSTUAK	
Garbigailua	400€
Inprimagailua	150€
Ordenagailua	700€
Mugikorra	300€
Lokaleko altzariak	600€
Guraizeak	2€
Zeloa	1€
Kola	1,50€
Pintzelak	8€
Karretilak	40€
GUZTIRA	2202,5€

Hasierako inbertsioa egin ondoren, jarraian proiektuaren garapenean zehar izango ditugun kostu finkoak azaltzen dira. Taulan ikus daitekeen bezala, UGGASArekin

dugun lokalaren alokairua eta langileen soldatak azaltzen dira. Horrez gain, gastu horien hileko eta urteko zenbatekoak zehazten dira.

KOSTU FINKOAK		
	Hilabetean	Urtean
UGGASArekin lokala	90€	1.080€
Soldatak	450 x 4 = 1.800€	21.600€
GUZTIRA	1.890€	22.680€

Azkenik, jarraian proiektuaren jardueraren arabera aldatzen diren kostu aldakorrak aurkezten dira. Taulan ikus daitekeenez, kostu aldakorak gasolina, erabilitako materialak (kartoia, tenperak eta goma eva) eta inprimagailuko tinta dira.

KOSTU ALDAKORRAK		
	Hilabetean	Urtean
Gasolina	100€	1200€
Kartoia	25€	300€
Tenperak	20€	240€
Goma eva	25€	300€
Inprimagailuko tinta	30€	360€
GUZTIRA	200€	2400€

Azkenik, hasierako kostu totala 2.202,50€-koa da, eta kostu finkoak eta aldakorrak kontuan hartuta estimatzen dugu hilero gure proiektuak 4.890€-ko kostu finkoak eta 200€-ko kostu aldakorrak izango dituela, hau da, guztira 5.090€-ko diru-irteerak sortuko dituela. Aipagarria da gure proiektuaren kostua nahiko baxua dela.